2017-IV-25
Número **523.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

# astekaria

## EDITORIALA

### Gure soldatak, behera

**Fase neoliberala gero eta era sakonagoan ezartzen dabiltza etengabe botere ekonomiko eta finantzieroa. Ekimen hori, gainera, areagotu egin da 2008az geroztik. Ez dute nahi kontuan hartu dezagun 2016an sortu den aberastasuna –Barne Produktu Gordina delakoa– historiako handiena izan dela eta enpresa handien mozkinak gero eta erraldoiagoak direla: komunikabide eta alderdi politiko sistemikoak erabiliz, kapitalaren jabeek are gehiago nahi dute eta horretarako soldatak murriztu eta ongizate estatua deuseztatzen ari dira, gizartearen gehiengoa txirotuz.**

**Soldatei buruzko informazio gehiegi ez badago ere, eta dagoena gutxitan aipatzen bada ere komunikabide eta eztabaida politikoetan, ezinbestekoa da horren analisi eta gogoeta burutzea. Hego Euskal Herrian ez dago informazio askorik soldaten inguruan. Estatu espainiarrak datu gutxi batzuk eskaintzen ditu INEren bitartez; EAE eta Nafarroako Gobernu eta Ogasunek ia ez dute ezer argitaratzen soldatei buruz.**

**INEk argitaratzen dituen informazioak bi dira: alde batetik, urteko EPAren datuak eta, bestetik, lau urtean behin soldatei buruzko inkesta. Horrekin guztiarekin soldaten batez-bestekoak, lanaldi motaren araberakoak, kontratuaren araberakoak, urtearen araberakoak, jaso den errenta kopuruaren araberakoak, sexuaren araberakoak eta beste hainbat informazio argitaratzen da.**

**Hau guztia kontutan hartuta ELAk azken urteetan soldatek Hego Euskal Herrian izan duten bilakaeraren inguruko txostena aurkeztu berri du. Eta, bertan jasotzen denez, ondorioa oso larria da: eros-ahalmenaren galera handia sufritu du urte hauetan langile-klaseak. ELAk egoera hau iraultzeko lanean jarraituko du.**

#EmanBostekoa!
Garaipenari!

**Aurten ere ELAk hitzordu bikoitza prestatu du Maiatzaren Lehenerako Bilbon eta Iruñean**

# OINAK LURREAN, KALEAK BETEZ

**Maiatzaren Lehena ate-joka dugu. Eta, noski, aurten ere kalera aterako gara langile-klasearen parte izateaz dugun harrotasuna azaltzera. 2017 honetan hitzordu bikoitza dugu, Bilbon eta Iruñean.**

**Bilbo:** Hitzordua 11:45tan izango da, Jesusen Bihotzean. Ordu horretan ekitaldi bat hasiko da, eta hiru lagunek hartuko dute parte. Adolfo Muñoz *Txiki* –idazkari nagusia–, Esther Saavedra –Bizkaiko zerbitzu publikoetako arduraduna– eta Soraya García –ELAren ordezkaria Bizkaiko Erresidentzietan–. Ondoren jendetsua eta koloretsua izatea aurreikusten den manifestazio bat habiatuko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzaren atariraino; bertan Bizkaiko Erresidentzietako langileen aldeko elkartasun ekintza bat egingo da. Aurten ere ohiko adiskidetasun bazkaria Areatzan jarriko den karpa erraldoian egingo da. Guztira 2.000 bazkari zerbitzatuko dira 19 eurotan –txikiek, 10–. Janari eta edari guztiak bertakoak eta ekologikoak diren produktuekin eginak izango dira.

**Iruñea:** Iazko arrakastaren ostean aurten ere ELAk Maiatzaren Lehena Iruñean ospatuko du. 12:00tan Udaletxearen aurrean amaituko den manifestazio bat hasiko da Gurutze Enparantzatik; Udaletxean bertan ekitaldi bat egongo da. Ondoren Labrit pilotalekuan herri-bazkaria egingo da. 19 euroren truke –adin txikikoek 10– urte honetarako aukeratutako menua dastatu ahal izango da: patatak txorizoarekin, oilaskoa entsaladarekin, pantxineta, kafea eta kopa. Bazkariaren ostean *Muxu-rock* taldeak bazkal-ostea girotuko du bere dantzaldiarekin. Gainera aurten haur eta gazteentzako txoko bat antolatutako da, puzgailu eta futbolinekin.

**2017 - PRIMERO DE MAYO**
**BILBAO, 11:45. SAGRADO CORAZÓN**
**IRUÑEA, 12:00. PLAZA DE LA CRUZ**




## CON LOS PIES EN EL SUELO

Somos el camarero que te saca el café de las mañanas. La conductora del bus que te lleva al trabajo. La profesora de tus hijos e hijas. El que arregla las baldosas de la calle. El cajero del supermercado. La enfermera del ambulatorio. El frutero del barrio. La doctora de Urgencias del hospital. La telefonista del Servicio de Atención al Público. El trabajador de la cadena de montaje. La limpiadora del cole.

Somos la becaria explotada. El parado de larga duración. La estudiante que está preparando la tesis. El que quiere cambiar de empleo precario pero no puede. La joven que no encuentra trabajo. Quienes trabajamos fuera y en casa. Quienes queremos trabajar y no tenemos empleo. Las y los pensionistas que con nuestra pensión mantenemos a nuestros hijos e hijas.

Quienes sufrimos todo tipo de chantajes porque necesitamos ese salario para poder vivir. Gente con los pies en el suelo.

Gente que este Primero de Mayo saldrá a la calle en Bilbao e Iruñea para luchar por nuestros derechos y construir una Euskal Herria más justa. Defendiendo nuestra autonomía como sindicato y nuestro derecho a cambiar las cosas.

Muchas personas se están organizando y luchan por unas condiciones dignas de vida y de trabajo, incluso sacando adelante huelgas tan importantes como en las residencias de Bizkaia. Ellas nos necesitan al lado, necesitan sentir tu apoyo. Muchas personas se están organizando y luchan por unas condiciones dignas de vida y de trabajo. Personas que en Navarra luchan día a día por un cambio político y social real que esté al servicio de la mayoría de la sociedad.

Por eso, este Primero de Mayo, nos vemos en la calle. Con los pies en el suelo.



**Las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia –el 26 de abril comenzarán una nueva tanda de huelga– serán las protagonistas del Primero de Mayo que se celebrará en Bilbao**

# "QUEREMOS QUE EL PRIMERO DE MAYO TODO EL PROTAGONISMO SEA DE ELLAS"



**En la imagen la presentación que realizó ELA el 24 de abril de los actos organizados con motivo del Primero de Mayo**

ELA presentó el 24 de abril los actos organizados con motivo del Primero de Mayo. Una cita en la que nuestro sindicato quiere defender su autonomía sindical y su derecho a cambiar las cosas. El lema elegido para este año –*Guk, oinak lurrean* (Nosotr@s, con los pies en el suelo)– pretende reflejar algo que, aunque sea obvio, siempre es imprescindible recalcarlo: ELA ha estado, está y estará al lado de quienes sufren los recortes sociales y el empeoramiento de las condiciones laborales, salariales y de vida.

Son muchos los trabajadores y trabajadoras que actualmente se están organizando para luchar por unas condiciones de vida y trabajo dignas. Sin embargo, hay una lucha que ELA quiere destacar sobremanera este año: la que están desarrollando desde hace más de un año las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia. Unas trabajadoras que el miércoles 26 de abril comenzaron una nueva tanda de huelgas y movilización que durará como mínimo cuatro semanas.

Estas trabajadoras encabezarán la manifestación de Bilbao, y serán las principales protagonistas de los actos del Primero de Mayo. Por eso este año ELA variará el tradicional recorrido de la manifestación de Bilbao; en lugar de terminar en la Plaza Circular se acabará frente a la sede de la Diputación Foral de Bizkaia. El objetivo es claro: apuntar a quien tiene la responsabilidad política de este conflicto.

En la presentación realizada en Bilbao el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz *Txiki*, destacó que el único objetivo es mejorar las condiciones laborales y de vida de la clase trabajadora. "Es indignante tener que oír que ELA hace huelgas políticas. Este tipo de comentarios eran típicos en otras épocas como el franquismo. La huelgas que hace ELA no son políticas. Es muy simple: solo queremos mejorar las condiciones laborales y vida de la gente. Y cuando esto sucede se acaban las huelgas. Cuando a las trabajadoras de la Residencias de Bizkaia se les ponga encima de la mesa un convenio digno, listo, se acabó la huelga".

Muñoz explicó por qué este año las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia serán las principales protagonistas de los actos del Primero de Mayo en Bilbao. "Su lucha representa a la perfección el mensaje que quiere lanzar nuestro sindicato. Por eso creemos que tenemos que apoyarlas con todas nuestras fuerzas. No podemos decir que vamos a resolver el conflicto, pero si que vamos a darlo todo para resolverlo. Por eso nos indignan los comentarios que estamos escuchando por parte de los responsables políticos de este conflicto. El Diputado General de Bizkaia, Unai Rementaria, debe saber que ELA no se inventa los problemas. Lo único que pretendemos es resolver esos problemas mediante la acción sindical".

Una acción sindical que según Muñoz solo es posible desde la plena autonomía política y económica. "La defensa de la clase trabajadora también afecta, inevitablemente, a los espacios social, político y económico. Por ello, si queremos construir una Euskal Herria más justa, el sindicato está obligado a actuar en dichos espacios".

## EN IRUÑEA TAMBIÉN SALDREMOS A LA CALLE

Tras el éxito del año pasado –más de 1.400 personas participaron en los actos organizados en Iruñea– ELA volverá a salir a la calle en la capital navarra este Primero de Mayo. A las 12:00 comenzará una manifestación desde la Plaza de la Cruz que finalizará frente al Ayuntamiento, donde habrá un pequeño acto. Posteriormente el frontón Labrit acogerá una comida popular.

Este Primero de Mayo llega en un momento muy especial para ELA, que acaba de superar el techo histórico en elecciones sindicales, superando por vez primera el 23% de presentación (23,09%). Un dato que refleja el magnífico trabajo que está realizando ELA en Navarra.




## GURETZAT ERE BEREZIA IZANGO DA (*)

**Aurten Maiatzaren Lehena guretzat berezia izango da. Apirilaren 26an beste greba txanda bat hasiko da guretzat; beste lau astez grebara deitu dugu. Azken urtean guztira 160 egunez egin dugu greba. Espero dugu lehenago amaitzea, akordio bat lortu dugulako lan-baldintzak eta sektoreko egoera duinagoak izan daitezen!**

**Horregatik izango da Maiatzaren Lehena berezia. Lehen greba egunetik 14 hilabete igaro dira. Hilabete hauetan une gogorrak izan ditugu, eta era guztietako esperientziak: errespetu falta, indiferentzia, beldurra sartu nahia eta xantaia, gure borroka neutralizatzeko eta ezkutatzeko saioak... horretarako bat egin dute patronalek eta Bizkaiko Aldundiak. Hauek asmo bakarra dute, gu menperatzea eta oraingo eredua mantentzea; eredu honekin egunetik egunera aberatsagoak dira zerbitzu pribatizatuarekin dirua irabazten dutenak; gure lan eta bizi baldintza txarrekin milioiak pilatzen dituztenak.**

**Egoera hain zaila izanik, guk erabaki dugu hautsi nahi dugula sistema honek inposatu nahi digun sumisioarekin. Prekario eta isilik nahi gaituzte. Antolatzeko gai izan gara; hasieran gutxi ginen, gero apurka gehiago, eta honez gero ehunka langile gaude kalean; borrokarako prest gauden emakumeak, egoera aldatu nahi dugulako.**

**Gainera, egunetik egunera gero eta jende anonimo gehiagoren babesa daukagu, eta beste organizazio batzuena. Babes horrek aurrera egiteko indarra ematen digu.**

**Aurtengo Maiatzaren Lehenean pertsona hauetako asko Bilboko kalean gurekin izango dira. Pertsona hauek, guk bezala, beldurra gainditu dute eta antolatzen ari dira, bizi eta lan baldintza hobeak lortzeko borrokan; batzuk geurea bezain greba gogorrak ari dira bizitzen.**

**(*) Bizkaiko Erresidentzietako langileek Maiatzaren Leheneko aurkezpenean irakurri zuten testua.**



## ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE e Hiru celebrarán diferentes actos conjuntos en Gasteiz, Bilbo e Iruñea con motivo del Día Internacional de la Seguridad y Salud Laboral

# CADA 15 MINUTOS SE PRODUCE UNA BAJA POR ACCIDENTE O ENFERMEDAD LABORAL



Los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE e Hiru han organizado diferentes actos para esta semana con motivo del Día Internacional de la Seguridad y Salud Laboral. Un problema que, tal y como denuncia Leire Txakartegi –responsable de salud laboral, ha empeorado. “En los ultimos años se está produciendo un aumento tanto de los índices de accidentabilidad como de las enfermedades profesionales. En 2016 en Hego Euskal Herria fallecieron 53 trabajadores y trabajadoras en accidente de trabajo. Los accidentes totales han aumentado un 9% con respecto a 2015. Cuando hablamos de la pérdida de la salud laboral en los centros de trabajo, por su gravedad y por ser lo más visible, ponemos el foco principalmente en las muertes producidas por los accidentes de trabajo. Tenemos que decir que son tan solo la punta del iceberg de todas las pérdidas de salud relacionadas con el trabajo”.

En los diferentes actos organizados con motivo de este día los sindicatos convocantes pondrán el foco en la precariedad, una de las principales causas de la pérdida de salud de la clase trabajadora estos últimos años. “El trabajo, su ausencia, naturaleza y condiciones son elementos determinantes para las condiciones sociales, derechos y estado de salud de la población. El trabajo nunca es neutral en salud, genera salud o genera enfermedad. En esta coyuntura, la situación se está viendo agravada, ya que la patronal se ha marcado como objetivo aprovechar la crisis para obtener un modelo de mercado de trabajo que le proporcione un mayor beneficio económico. Precarizando aún más si cabe las relaciones laborales con medidas antisociales (despidos, reducción de salarios, o incluso a medio plazo aumento de jornadas en beneficio de la economía...)”.

En este contexto, Leire Txakartegi recalca la necesidad de destacar la realidad de las Enfermedades Profesionales. “Hay que ampliar el foco de atención y denunciar qué está sucediendo. Si observamos el comportamiento de los accidentes de trabajo y de las enfermedades profesionales en el marco de la Unión Europea, la conclusión es esclarecedora: por cada muerte ocasionada por accidente de trabajo se producen 18 muertes por enfermedad profesional. En cambio, en Euskal Herria no se dan esos parámetros ni de lejos. De hecho, en las estadísticas relacionadas con enfermedades profesionales no se registra ni una sola muerte ocasionada por enfermedad profesional, a pesar de que en los últimos nueve años hayan fallecido 180 trabajadores y trabajadoras solo a resultas del amianto”.

“Hacer visibles las enfermedades profesionales es el mayor reto preventivo y sindical. Si la enfermedad profesional queda oculta, desaparecen los motivos para prevenir los ambientes tóxicos, los movimientos repetitivos o malas posturas y se olvida la obligacion de mejorar las condiciones de trabajo”.

### DÍA INTERNACIONAL DE LA SEGURIDAD Y SALUD LABORAL

**27 de abril. Gasteiz. 11:30. Plaza Correos**

**28 de abril. Bilbao. 11:00. Gran Vía, 50**

**28 de abril. Iruñea. 12:00. Avenida Pío XII, 16**

## GURE ALDARRIKAPENAK, BADIRA ALTERNATIBAK

**Horrenbestez, lanean hasi behar dugu, egungo osasun eta lan-osasun arloko ereduaz bestelako bideak garatzeko. Badira alternatibak, eta borondate politikoa bakarrik falta da, osasuna babesteko sistema alternatibo bat garatzeko, jendearen bizitza eta osasuna erdigunean jarriko dituena.**

**Horretarako, Gasteizko eta Iruneko Gobernuei exijitzen diegu behar diren aurrerapausoak eman ditzatela, honakoa bermatzeko:**

**1.- Enplegu segurua, osasungarria eta kalitatezkoa sortzea.**

**2.- Errotik aldatzea lan-osasun arloko politika publikoak, behar diren diru eta giza baliabide guztiak erabilita. Baliabide gehiago bideratu behar dira lanbide-gaixotasunen ikerketara, eta arreta berezia jarri behar da emakumezkoek pairatzen dituzten gaixotasun eta patologietan.**

**3.- Osasuna politika guztietan babestu behar da. Politika publikoek osasunean eta osasun arloko berdintasunean duten eraginaren ebaluazioa sustatu behar da, hala osasun sektorean nola bestelakoetan. Osasun arloko eragina ebaluatzeko metodologia garatu eta sistematizatu behar da, sektorekako plan eta esku-hartzeetan aplikatu beharreko tresna gisa.**

**4.- Neurriak hartu behar dira lan-ezbeharren eta lanbide-gaixotasunen azpierregistroaren aurka. Horretarako, berezko erregistro bat sortzea eskatzen dugu.**

**5.- Lan-osasuneko sistemak txertatua egon behar du sistema publikoan.**

**Osasunari eragiten zaizkion kalteak identifikatu, aitortu eta tratatzeko prestakuntza eta planak, Osasunbideak eta Osakidetzak bultzaturik.**

**Aholkularitza, ikuskaritza eta zehapen eginkizunak koordinatu eta indartu behar dira.**

**Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (ISPLN) eta OSALANen eginkizunak indartzea.**

**Sistema publikoak, halaber, bere gain hartuko ditu mutuek gaur egun egiten dituzten lanak, haien baliabideak eta bitartekoak barne.**

**6.- Gizarte Segurantzaren berezko sistema bat sortzea.**

**7.- Arauak betetzen ez dituzten enpresetan ikuskapen eta kontrol handiagoa egitea, baita zehapen handiagoak jartzea ere. Esparru publikoak ez luke kontrataziorik egin behar prebentzio arloa ez betetzeagatik zigortutako enpresekin.**

**8.- Egungo egoeran, euskal erakunde publikoek mutuen jarduera zaindu eta kontrolatzea.**

**9.- Jendearen osasuna lehenetsiko duen prebentzio-sistema publikoa behar da. Prebentzio Zerbitzuek sistema publikoan txertaturiko eredu baterantz jo behar dute, enpresekiko independentzia ziurtatuta. Prebentzio zerbitzuen kontrol soziala ziurtatzeko modalitateak ezartzea.**

**10.- Prebentzio integrala eta enpresetan txertatua, berezko baliabideekin garatua.**



# LABURREAN / BREVES

## • ELA firma el acuerdo del Ayuntamiento de Iruña tras diez años de bloqueo

ELA firmó el 12 de abril el acuerdo del Ayuntamiento de Iruñea. Puy Remírez, responsable de la Administración Local en Navarra, hace una valoración positiva el acuerdo, pese a reconocer que el documento no recoge todas las mejoras que hubiera pretendido ELA. "La sección sindical, tras un profundo proceso de reflexión, ha decidido apoyar el acuerdo. Es verdad que no es el acuerdo que queríamos, pero es justo reconocer que es un buen punto de partida y que contiene varias líneas rojas que habíamos marcado. Valoramos muy positivamente la apuesta del Ayuntamiento para reducir la eventualidad hasta un 6%, la inclusión de la ultractividad ilimitada, así como el refuerzo del euskera o la promoción, equiparación económica o de nivel que se pondrá en marcha".

"Asimismo, –añade–, nos gustaría aplaudir la decisión de poner fin a la anterior política de ninguneo del euskera y valorar la apuesta del actual equipo de gobierno por garantizar la atención bilingüe, facilitando la euskaldunización de la plantilla".

## • Maiatzaren 16 eta 23an lanuzteak EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan eta haurreskoletan




ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek greba eta mobilizazio berriak iragarri dituzte maiatzaren 16 eta 23rako EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan eta haurreskoletan. Gainera maiatzaren 20ean –larunbata– langileez gain, familia eta herritarrak ere deituak daude 12:00etan Bilbon (Jesusen Bihotza), Gasteizen (Bilbo Plaza) eta Donostian (Boulevard) egingo diren manifestazioetan parte hartzera.

ELAk irakaskuntzan duen arduradun Xabi Irastorzak azpimarratzen duenez, martxoaren 22an deitutako greba eta mobilizazioek arrakasta nabarmena izan zuten arren –jarraipena %75etik gorakoa izan zen eta milaka lagunek hartu zuten parte mobilizazioetan– Eusko Jaurlaritzak ez du orain arteko jarrera aldatu. "Egoera honen aurrean ez digute mobilizatu beste aukerarik uzten. Hezkuntza publikoaren egoera larria da gurean, eta egoera hau iraultzeko neurririk hartzen ez bada egoera are eta gehiago okertuko da etorkizunean".



## • Las trabajadoras de los supermercados Simply en procesión contra el cierre de algunas tiendas en Bizkaia

Las trabajadoras de los supermercados Simply protagonizaron el 12 de abril una singular marcha en Bilbao. El objetivo de esta protesta fue denunciar el cierre de algunos centros en Bizkaia. La dirección de la cadena pretende implantar un modelo basado en tiendas de conveniencia de 400 metros cuadrados y más de 8.000 referencias, lo que les permitiría la apertura los 365 días durante 18 horas al día.

## • Lanuzte gehiago Artxandako tuneletan

ELA eta LAB sindikatuek lanuzte berriak deitu zituzten Artxandako tuneletan apirilaren 15, 16, 18, 22, 23 eta 27rako. ELAk salatu nahi du Transbisak –zerbitzu honen kudeaketaz arduratzen den enpresa– ez duela lan-hitzarmenean akordiorik lortu nahi. Hitzarmena 2014tik dago eguneratu gabe. Zuzendaritzarekin azken bilera martxoaren 28an egin zen. Bertan baieztatu zenez egun ez dago akordio bat lortzeko baldintzarik. Orain arte zazpi greba egun egon diren arren, enpresa ez da ia mugitu. Enpresak ez luke arazorik izan behar langileen kolektiboa mobilizatzera daramaten helburuak adosteko. Horregatik ELAk ez du ulertzen aldarrikapenak neurtuak izan arren gatazka areago luzatzea.

## • Sentencias favorables a la plantilla de Unipapel

El Juzgado de lo Social Número 5 de Donostia ha sentenciado que las y los trabajadores de Unipapel de Aduna podrán cobrar la totalidad de la indemnización correspondiente al despido improcedente, no siendo necesario acudir al Fondo de Garantía Salarial. ELA valora muy positivamente esta sentencia (la empresa la ha recurrido). La antigua Unipapel firmó en 2014 un acuerdo para vender su unidad de negocio industrial a la firma de capital de riesgo Springwater por 16 millones de euros. Desde aquel momento Unipapel se ha visto precipitada a una crisis irreversible y premeditada. Dos años más tarde, en julio del 2016, la totalidad de la plantilla de Unipapel entró en un ERE de suspensión indefinido y, además, la compañía entró en concurso de acreedores. El ERE de suspensión fue declarado nulo en noviembre del 2016 por ser considerada una medida fraudulenta, no apropiada para solventar la situación estructural de crisis de Unipapel.

Durante el proceso ELA ha interpuesto demandas tanto de "extinción de contrato" (por meses de impagos a los/as trabajadores/as) como de "despido tácito", ya que la empresa no reincorporó en sus puestos de trabajo a los/as trabajadores/as al anularse el ERE de suspensión. Las sentencias dictadas hasta ahora han sido favorables a los trabajadores/as.

## • Loiuko Aulaga Gurena erresidentziako langile baten kaleratzea baliogabetu du epai batek

Epai berri batek Bizkaiko zahar-etxeetako gatazkan greba egiteagatik bota zuten langile baten kaleratzea baliogabetu du. 2016ko uztailean Loiuko Aulaga Gurena zahar-etxeko zuzendaritzak bi langile kaleratu zituen, ELAko afilituak biak. Hamar urteko esperientzia zuten enpresan. Zuzendaritzak hutsegite larriak aipatu zituen kaleratzeak justifikatzeko, baina ezin izan ditu hutsegite horiek epaitegian frogatu.

Urtarrilean lehenengo epaiketa izan zen, kaleratua izan den langileetako batena, hain zuzen ere. Epaia irmoa izan zen: kaleratzea baliogabetu zuen epaileak, oinarrizko eskubide bat urratzeagatik. Langilea berriz ere hartzera derrigortu zuen epaiak. Kaleratutako bigarren langilearen epaia, berriz, berriki izan da. Kasu honetan ere epaia irmoa izan da: kaleratzea baliogabea zen oinarrizko eskubideak urratzeagatik. Ondorioz, kasu honetan ere, enpresa derrigortuta dago langilea berriz onartzera. Gainera, epaileak hala agindu-ta, langileak kaleratu aurreko baldintzak izango ditu eta kaleratua izan zenetik jaso ez dituen soldatak berreskuratu beharko ditu.

ELAk hasieratik esan zuen kaleratze horien atzean beste interes batzuk zeudela: ELAko militante izateagatik zigortzea, erresidentzietako greban modu aktiboan parte hartzen zutelako biek. Hala egiaztatu da gainera epaian. Izan ere, kaleratuak izan diren ELAko bi militante hauek erreferenteak dira euren lan-zentroan, baina baita sektorean ere.

Epai honek agerian utzi du nortzuk diren langileei xantaia egin eta beldurra eragiten dietenak: greba egiteagatik kaleratzen dituzten enpresak eta gatazka okertzea beste helburudik ez duen estrategia politikoa babesten dutenak. Argi ikusten da hori, zerbitzuaren kalitatea eta lan-baldintzak hobetze aldera beharginek mahai gainean jarritako proposamenei bizkarra ematen dieten guztietan.



**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207